



EUSKAL KULTURA ETA KULTUR POLITIKA TXOSTENA

*(2007ko abenduaren 1ean eta 2an egindako
V. Batzar Nagusian onetsitakoa)*

AURKIBIDEA

Orr.

0.- SARRERA.....	1
I.- EUSKAL KULTURA ETA EUSKAL HERRIA. EUSKAL KULTUR POLITIKAREN INGURUMARIA.....	4
1.1.- Kultura eta nortasuna munduan.....	4
1.2.- Kulturak munduan eta kultur eskubideak.....	5
1.3.- Kultura nazio askoko Estatuetan	7
1.4.- Euskal kultura eta nortasuna	8
1.5.- Etorkinak, gizartean txertatzea eta euskal kultura.....	11
II.- EUSKAL KULTURAREN EGITURA: AHULEZIEN AZTERKETA ETA ABIAPUNTUAK.....	14
2.1.- Azterketa orokorra	14
2.2.- Euskal kultur politikaren oinarritzko abiapuntuak.....	17
III.- KULTURAREN ETA KOMUNIKABIDEEN POLITIKA.....	22
3.1.- Egitasmoa eta aukera.....	22
3.2.- Kultur politika eta jardunbidearen irizpide edo ardatzak.....	23
3.3.- Komunikabide politika.....	26
IV.- ONDORIOAK.....	28
ERANSKINA	30

0.- SARRERA

Krisiak jota dago euskal kultura. Une kritiko, korapilatsu eta sakonean, bere osotasunean ulertzeko zailak diren joera batzuek eraginda. Aldi berean, une kritiko hauek aukerak eta mehatxuak eskaintzen dizkigute.

Baina krisi uneak berez ez dira txarrak. Gure Herri honetan, hausnarketaren eta lanaren ondorioz berrindartu gaituzten hainbat krisi une bizi izan ditugu, beste esparru batzuetan ere. Krisi garaiak aldaketa garaiak dira eta aldaketa garaien aurrean bi jarrera har litezke; kikildu eta gauzak bere horretan utzi edo hausnartez, jakinduriaz eta lanez hornitutako jarrera ausartez agertu. Bigarren hau izan da, da eta izango da, beste esparru batzuetan bezala esparru honetan ere, EAJren jarrera.

Euskal Herria eta EAJ-PNV, gizarte honen buruzagi den aldetik, mehatxuei aurre egiteko ekimenak eta hauek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea funtsezkoak direla ikusi beharko dute euskal kulturak aurrera egingo badu. Horretarako, funtsezkoa izango da Euzkadiko errealitate kulturalaren gaineko diagnosi zehatza egitea.

Hegoaldean frankismoaren garaiko zapalkuntzaren ondoren, euskal kultura garatzen eta sendotzen hasi zen pixkanaka-pixkanaka, batez ere, euskararen batasunaren, ikastolen mugimenduaren, Euskal Irrati Telebistaren, edo kultur eta arte, euskal musika eta euskal folklorea sorkuntzaren garai garrantzitsuan oinarrituta. Honekin batera, trantsizio garaitik Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen eraginez, alderdiaren buruzagitzapean, eta euskal gizartearen ekimenez, aurrerapauso nabariak eman dira euskal kulturaren sustapenean eta normalizazioan. Aipatzekoa da besteak beste, EAEn kulturaren eremu desberdinetan azpiegitura mailan egin den aurrerakada, hala nola, kultur etxeen liburutegien, museoen sare zabala eta aberatsa burutu da herri eta hirietan, azpiegitura bereziak ahazteke. Azpiegituz aparte, eman da aurrerapausorik kulturaren beste hainbat alorretan, euskal liburuen ekoizpenean, antzerkiaren munduan, musikaren eremuan, ikus-entzunezkoaren ekoizpenean eta zabalpenean. Pizkundea dei dakioke kulturaren aurrerabide honi.

Horretarako, Alderdiak euskal emigrazio eta erbestearen gaineko eta Euzkadira etorritakoei buruzko azterketarako interpretazio zentro handia sortzeko instituzio publiko eta pribatuen arteko hausnarketa bultzatuko du. Honek euskal emigrazio eta erbestearen inguruko ezagutza handiagoa eskainiko du eta era berean etorkinenganako solidariotasunaren garapena, Euzkadiren etorkizunean hauen parte hartzea sustatze aldera. Zentzu berean, Euzkadira itzuli nahi duten euskaldunentzako edo hauen ondorengoentzako arreta bereziko politikak bultzatuko dira.

Baina, aurreko guztia horrela bada ere, euskal kulturaren edukien sormenak, bere zabalkundeak, errentagarritasunak eta gizartean duen eraginak aurrez

aurre dituzte txiki izateak alde batetik eta globalizazioak eta teknologia berriek bestetik eragindako beharrian bereziek dakartzaten erronkak. Hizkuntza eta kultura espainolaren eta frantsesaren erasanak sortzen dituen eragozpenei, Interneten erabilera zabalaren, kable eta satelite bidezko telebisten ugaltzearen eta toki guztietan agertzen den ingelesaren gertakizun berriak erantsi behar zaizkie, baita, berriagoak izan arren, oso sendotuak dauden iparramerikarren zinearen eta musikaren nagusitasun zapalgarria ere. Egoera arrunt kezkarria, noski.

Espainiako eta Frantziako estatueta nagusi diren kulturen erasanak ondorio lehergarriak ditu. Alde horretatik, anglosaxoi kutsu nabarmena duen globalizazioak, teknologi, gizarte, merkataritza eta ekonomi aldetan gerizaturik, zabaltzen eta ezartzen dituen irudi, balio, eredu eta portaerek dakarten herio arriskua Frantziako eta Espainiako kulturagile ospetsuek salatzea esanguratsua eta kezkarria da. Horrexegatik Estatu hauek “salbuespen kulturala” aldarrikatzen dute. Anglosaxoi ez diren munduko beste kultura guztiek, baita indartsuenek ere, jasaten badute arrisku hau, oso presakoa da gure kulturak inguruko eta munduko erasoetara eutsiko badie elkarlana eta ekinbideak egituratzea.

Ingurumari honetan, kontrako gorabeheren ondorioztat jo dezakegu gure kulturak bizi duen kinka larria. Gizarte bezala munduko iraultzari ez egokitzearen ondorio ere bada, ordea kultura berezi eta txikia izateak eratorria. Horretarako, izan ere, gure sortzaileek duten ezberdintasun gabeko sormenaz gainera, kultur enpresa sendoak, egoki finantzatuak eta teknologi aldetik behar bezala kokatuak behar dira. Edukien sortzaile garez, balioa ematen eta zabaltzen ere jakin behar dugu. Burubide eta baliabide berriak behar ditugu. Bestela ez ditugu ekonomi eta industri azpiegiturak ez abian jarriko eta ez sendotuko. Hori egin ezear, berriz, ez gara nahikeriatik eta kili-kolo ibiltzetik aterako. Eta ez da gure ekoizpena teknologi berrien babesean sortutako kultur esparruetan azalduko.

Hala esaten genuen 2004ko txosten politikoan: *Berriazko nortasuna du Euskal Herriak Europako herrien artean. Izan ere, beste batzuk, handiagoak eta indartsuagoak, era berdinekoak eta bakarrekoak izatera behartu behararen beharrez galdu badira ere, Euskal Herriak eutsi egin die bere nortasun ezaugarriei.* Berdinak izatera behartu nahi gaituen beste eraso oso indartsua ari gara jasaten, ezberdintasun gabe. Eta asmoz eta jakitez egin behar diogu aurre.

Horretarako, oinarritzat eta lehentasunezkatzat jo behar dugu kultura alde guztietatik: kulturaren, teknologiaren, ekonomiaren eta erakundearen aldetik.

Gure gizartearen sormenean eta eraginkortasunean uste osoa dugu. Gainera, ekonomiaren eta euskal kultura berriaren oinarriak sendotzeko, errepide eta azpiegiturretan urtero erabiltzen den dirutzaren zatitxo bat nahikoa izango litzatekeela iruditzen zaigu. Egin, egin behar dugu, 2000ko Txosten Politikoan genion bezala, txikia izateak dituen abantailez baliatuta: *mugikortasuna, egokitzeko erraztasuna, erabakiak hartzeko azkartasuna.*

Jokabide aldaketa hau gidatzeko eta aurrera eramateko oinarrizko lanak zeintzuk diren erabakitzeko EAJ-PNVren apustua argi utzi nahi luke txosten honek. Kulturari zuzenki lotua dagoen ekonomi alor zabalaren etorkizuna bakarrik ez dago jokoan. Ikuspegi zabala, berrikuntza, sorkuntza eta lehen gai berriak berekin dituen mundu aldakor, globalizataile eta lehiakorrari egokitzeko gure gaitasuna dago jokoan. Gure biziraute ekonomikoa dago jokoan, beraz. Eta, batez ere, Euskal Herriaren nortasuna dago jokoan. Orain hartzen ditugun edo hartu gabe uzten ditugun erabakiek sakon erasango diete hurrengo belaunaldiei.

Gure herriaren modernitate kulturalak modernizazio sozialerako prozesua sortarazten du gizartearengan sentsibilizazio eta integrazio maila altua lortzeko kultura eta aisi eskaintzari begira. Hortaz, kultura ikuspuntutik egituratutako gizartea genuke.

Izan nahi duguna izango gara, nondik gatozen eta honen guztiaren zergatia ezagutzen dugun heinean.

I.- EUSKAL KULTURA ETA EUSKAL HERRIA.

EUSKAL KULTUR POLITIKAREN INGURUMARIA

1.1.- KULTURA ETA NORTASUNA MUNDUAN

Nortasunaren oinarria da kultura bere adiera zabalean. Herritarren artean jakitearen eta zentzuen joan-etorria ziurtatzen eta gizartea ibilarazten eta elkarrekin ulertarazten laguntzen duen erreminten kutxa da kultura gizartean. Herri batean, historian zehar, izan diren gizarte harremanen emaitza da kultura. Eta horietan hezurmamitzen dira berenak bezala hartzen dituzten elkarren arteko ezaugarriak (hizkuntza, balio goraiatuak, bizierak, ikur ezaugarriak, ohiturak, jakintza, artea, mitoak, norberaren diren erakundeak...).

Tylorek egiten zuen definizio antropologiakoa gogoratuz “kultura da ezagutzak, sinesmenak, artea, morala, zuzenbidea, ohiturak eta gizakiak gizartearen kide den aldetik garatzen dituen gainerako gaitasunak bateratzen dituen osotasun konplexua da”.

Kultura baten ezaugarriek eta taldeko bizipenek sortzen dute elkarren arteko barne eta kanpoko lokarria, senidetasuna, nortasuna. Kultur nortasuna ez da historian zehar gertatzen diren zantzu berdinen errepikapena, gutxi-asko iraun duten kultur zantzuen multzoa eta muina baizik: belaunaldien jarraipenari zentzua ematen dioten historiaren oroitzapena eta etengabe aldatzen ari den kulturaren eta gizartearen ekinbidea.

Aurrekoengandik hartzen dugun kultura aldakorra eta askotarikoa da. Ez da odolean etortzen. Gizarteko talde berezi batek emandako erantzunen multzoa denez, ikusi-ikasiz aldatzen eta ondorengoetarazten da belaunaldiz belaunaldi. Etengabeko aldakuntzan dihardu, beraz. Aldakorrak, moldakorrak eta beren baitan desberdinak, giza talde desberdinei atxikiak, dira kulturak. Arbasoengandik hartuko altxortzat dugun kultura honek, beraz, era askotako adierazpideak ditu, baita gatazkatsuak ere.

Desberdinak garen guztien onerako hartu behar diren erabakietarako partaidetza demokratikoa hobeto txirikorda dadin lokarriak sortzen dituzte erkidegoek; herritarren elkarlanaren eta erantzukizunaren balioa bistarago jartzeko elkartasun baldintzak eragiten; bizimodu berdinagoa eragin edo nekeak elkarrekin eramaten lagundu eta gizartean ongi txertatzen sakondu.

Kontuan hartzekoa da kulturak funtzio hirukoitza duela: gizartea artikulatzea, komunikazio espresiboa eta gizarte anitz batean zentzuak sortzea eta produzitzea. Hortaz, ulertzekoa da kultura ez dela produktu hutsa, baizik eta prozesua, harremanetarako gunea (bere bitartez eratzen diren harremanak).

Kultura nortasun pertsonal eta kolektiboa da; sorketa da, jaia da, zabaltzea da, ondarea eta baloreak zabaltzea. Kultur politikak erantzuna eman behar diote kulturaren sustapenerako balore eta printzipioei. Hortaz, kultur politika ezin da izan kultura eskaintza metaketa soila, baizik eta behar kulturalen asetzea bilatu behar du honako balore hauek sustatuz . Baina kultur beharrianak asetzeaz gain, Kultura eta hizkuntza arriskutan duen gurea bezalako Herri batean , beharrian kultural berriak sustatu eta sortu behar ditu, ondorengo balore hauetan oinarrituko den kultur politika sortzaile eta bultzatzailea sustatuz:

- 1.- Nortasuna, hiritarren artean eta hauek inguruarekiko lotura sentimendu gisa ulertuta.
- 2.- Askatasuna, kultur espresioen aniztasunarekiko begirune gisa ulertuta eta sorketaren sustapenerako.
- 3.- Berdintasuna, kultura demokratizatzeko eta zabaltzeko, kultur demokraziaren aurrekari modura. Kulturak, aberastasun pertsonal, giza-kohesio, nortasun kolektibo, garapen ekonomiko eta orokorrean, bizitza kalitatea suspertzeko eta hobetzeko balio du.
- 4.- Parte hartzea, kultur politikan konpromisoa eta gizartearen lankidetzaren sustatzeko.
- 5.- Sormena, gizarte aldaketei egokitze prestakuntza lortzeko.

1.2.- KULTURAK MUNDUAN ETA KULTUR ESKUBIDEAK

Aniztasuna identitate desberdin elkarbizitzak osatzen du. Lurralde batean bizi diren gizon-emakume gehienek herri-nortasun edo erkidetzea partekatua dute. Bizi ere bakoitzak bere gizarteratze ekinbidean bizi du. Gizarte gertakizunetan ikus daitezkeen naturalenak dira.

Kultur edo herri nortasunak abiapuntuko zantzuak dira, ezinbesteko babesleku zalantzazko mundu honetan, kontrapuntu munduko harremanetan. Eta, jakina, geopolitikoan oso aintzakotzat hartzekoa, ez ukatzeko, errespetu eta harreman atsegingarrien esparruan aitortuak izateko baizik. Desberdintasunean ez da koskarik, munduko garapen baldintzetan, giza eta politikako eskubideetan eta elkarbizitzan baizik. Unibertsaltasunari desberdintasunekiko errespetutik erantzutea da kontua.

Kultur eskubideak egile batzuek definitu dituzte. Honela, eskubide hauek giza eskubideen barnean “baztertutako” edo “azpi-garatutako” kategoria osatzen dutela dio Janusz Symonidesek. Izan ere, giza eskubideen barnean gutxien

garatutako esparrua da kultur esparrua; nahiz eta hainbat nazioarteko testutan aipatuak izan. Adibidez:

-1948 urteko Giza Eskubideen Adierazpen unibertsala (22 eta 27 artikulua).

-1966ko Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmena (27.artikulua).

-Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen nazioarteko hitzarmena, 1966 urtekoa ere (15. artikulua).

Hitzarmen biotako 1. artikulua ezartzen duenez “herri guztiek dute determinazio askerako eskubidea”, honen arabera egin ahal dute garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren alde.

-1948 urteko ONU erakundearen Konbentzioa Genozidio Delituaren Prebentzio eta Zigorretarako. Aditu batzuen ustez bizitza edo integritate giza eskubidea lotzen du talde batek bere bizi iraupenerako duen kultura eskubidearekin. Konbentzio honen arabera zigortzekoak lirateke “integritate fisiko edo mentalaren kontrako ekintzak edo taldea bere osoko edo zatikako ezabatze fisikora eramango duen bizi baldintzetara nahita eramatea”.

-Gutxiengoen gaineko Eskubideen gainean ONU erakundeak eginiko adierazpena, 1992 urtean.

-Emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa (13. artikulua).

-Umearen Eskubideen gaineko Konbentzioa (31. artikulua).

-UNESCO eta ONU erakundeen gainontzeko arau tresna guztiak.

Kontua da kultur eskubideak sakabanatuta daudela hainbat nazioarteko eta eskualdetako adierazpen, hitzarmen eta itunetan. Horrez gain gutxien garatutako eta praktikara eraman gabeko giza eskubidea izan ohi da. Javier de Lucas-en hitzetan “kultura eta nortasun kulturalaren gaineko ezagupenak ez dira baketsuak, ezta beren formulazio juridiko-politikoan”. Hori izan daiteke, alde batetik, unibertsaltasuna eta erlatibismoaren arteko tentsioagatik eta, bestetik, nortasun kultural ezberdinak onartzean “nazio batua” arriskutan jarri ahal delako usteagatik.

Symonides-en hitzak berriro gogoratuz, kultur eskubideei “arreta txikiagoa egiten zaie eta sarri askotan guztiz ahaztuak dira”. Dena dela ezin da bakearen kultura sustatzea mundu osoan pertsonen eta taldean eskubide kulturalakiko begirunea sustatu gabe. Modu berean ezin dira kultur eskubideak sustatu agenda politiko eta instituzionalean ez bazaie garrantzi handiagoa ematen eta dagozkien aurrekontuak aurreikusiz.

1.3.- KULTURA NAZIO ASKOKO ESTATUETAN

1.3.1.- Kultura nagusiak eta kultura ttikiak. Izatez nazio askoko Estatu direnak ez dira eskubidez izan ohi, ez dira, behintzat, kulturak baldintza edo aukera berdinean aitortuak izan ohi. Ez dira kultura nagusiak eta ttikiak egoera berdinean bizi; eta hizkuntzei dagokienez diglosi egoera hizkuntza nagusiaren mesedetan suertatu ohi da. Estatu-Nazioetan abantaila erabakigarriak ditu kultura nagusiak ttikien kaltetan, baita burujabetza maila bat lortu duten herrietan ere.

Izan ere, Estatu-nazioetan kultura nagusia Estatuaren kultura bihurtzen da, Estatuarekin bat egiten duena, gainera (greziarra edo danimarkarra izateak ia dena esaten die besteei). Egitate edo gertakizun sustraituaren abantaila du, gainera. Bidezkotzat eta onartutzat jotzen da. Ez dio barrutik bere buruari galdetzen, ezta inork kanpotik haren berezkotasunak eztabaidatzen ere. Areago, bere oinarriko edukiak besterenganatzen ditu hezkuntzako *kurrikularen*, erakundeen ohiko jardunaren, gertakizun naturaltzat hartzen eta birsortzen duten hedabideen eta gizarteko bizikizunen bidez. Iraunkorra, egituratua eta birsortzailea den sistema bilakatzen da.

Alderantziz, Estatu barruko gutxiengoaren kulturetan ez da horrelakorik, ez da komunikabide/kultura, ekonomia eta legeria/politikaren artean egokitasunik suertatzen. Ez dute alor horiek (diglosia, hedabideen nagusitza, mendeko esparru politikoa...) konponbideratzen dituzten baliabideak kontrolatzeko eta birsortzeko ahalmenik. Trukean galtzekoa besterik ez dute gutxiengoaren nortasunek. Nekez mintza gintezke sistemaren berezko geldotasunaz. Erakundeen eta taldeen etengabeko nahimen jardunera behartzen ditu, baita eragilean, gizarte erne eta eraginkorraren ekinbidera ere. Horretarako ez baita norbere erakundeen alorra aski.

1.3.2.- Kultura ttikien arriskua. Oro har, kulturaren eta norbere kulturaren alde irabazteko apustua egiten ez duten eta, beren baliabide adierazgarriez baliaturik, teknologien, sorkuntzen, ekoizpenen eta harreman eta eragin sareetan abantailez sartzan ez diren kulturek etengabeko hondamena jasango dute. Ez dute nazio-gaindiko kulturaren eta lurberako eraginen eta Estatuko kultura nagusiaren erasan hirukoitza orekatuko.

Globalizazioak gehien laguntzen dituen eremuak beste batzuk direla jakin behar dute: munduan teknologi eta finantza gune indartsuak dituzten kulturak; gizarte harremanak eta politikaren, agintearen eta kulturaren loturarik nagusienak gidatzen dituzten Estatu-nazioen kulturak; eta bere baitan harremanen bidegurutze diren hiri handi aurreratuak. Izan ere, nortasun eta historia-kultur harremanen eremua, hau da herri-nortasuna duten erkidegoen eremua, ekinbide horretatik

kanpora geratzen da, kultura nagusien erasanari eustea ttikien gogoaren eta ekinbide egokiaren esku bakarrik baita.

Horrek eta gero eta ugariago diren materiagabeko balio erantsien munduaren eskakizunek ezinbesteko alor estrategikoa aintzakotzat hartzera gonbidatzen gaitu alde guztietatik; kulturaren (kultura ttikitik munduko aniztasunari laguntzea), teknologien (edukiz hornitutako sareak eta azpiegiturak), ekonomiaren (abian diren aldaketei egokitzeko materiagabeko balioen eta jakintza mailak eta gizartearentzat hezitzaile direnen alorra) eta erakundeen (bigarren mailatik lehen mailara iragan) aldetik.

1.3.3.- Estatu-gabeko nazio ttikien zailtasunak. Hain zuzen, beren eremu publikoa, erkidegoa eta elkarbizitza eraikiak dituztenez, oinarri sendo horietatik erantzuten diete beste herriek gizarte informatikoaren eta digitalaren eskakizunei. Baina estatu gabeko nazioek beren erkidegoa, beren nortasuna, beren kultur sistema eredugarria, beren hedabideen sarea, beren aginpide sailak, barneko talde desberdinen elkarbizitzarako gakoak, beste herrialdeekiko beren harremanak, beren ekonomiak, beren mitoak, beren jomugak eta beren herriak historian duen lekua eraiki behar dituzte.

Erronka izugarria da. Herri ttiki ondo antolatuek eta herrimin handi eta irekikoek abantaila bat izan dezakete; hain zuzen, bere ondokoaren ezagutza eta globalerako sarbidea. Ez baita ahaztu behar globalizaziorako joerarekin batera, neurri ttikiagoan bederen, lekukorako eta deszentralizaziorako eta hurbiltasunerako eta arazoaren konponbidea norbere esku izateko joerak ere badaudela.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ustetan gizarte berriek aurrez aurre duten lana da aukera baikorrak eta arrisku ezkorrek ezberdintzea, hau da, hiritarrek kultura eskuratzeko aukera hobea izan dezaten, kultur eremu zabalagoa, unibertsalagoa baina aktiboagoa; hortaz, nortasun propioan erro sendoak izanez eta unibertsaltasunak eskaintzen dituen onurak eta homogeneotasunak dakartzan arriskuak ezberdintzeko gaitasunarekin eta gure herriak dituen balore humanistak garatuz.

EAJk proposatutako kultur politikak beharrezkoa den gurea eta osagarria den ondokoa ezberdintzeko gaitasuna sustatzen du; uniformetasun arriskua gainditzeko eta isolatze arriskua ekiditeko.

1.4.- EUSKAL KULTURA ETA NORTASUNA

1.4.1.- Euskal kulturaren adiera zabala. Alderdikeriazko kutsurik gabeko eta guztiok onartutako euskal kulturaren adiera zabaleko eta hiru ekarriren

emaitzako kultura bakarra eragingarriagoa izango litzateke. Hiru ekarriak: *Lehenengoa, arbasoengandik hartutako kulturaren muina. Bigarrenkoa, besteren kultura geureganatuak eta geuretzat hartuak. Hirugarren, gaurko euskaldungoaren kultura. Lehenengotik, historia, hizkuntza, ikurrak, erakundeak, artea, bilakaeran dauden bizimoduak eta abar datozkigu. Bigarrenengotik, beste hizkuntza batzuk eta aberastasuna. Hirugarrenetik, aniztasuna, sintesia eta etengabeko birdefinizioa* (Kulturaren Euskal Plana 2004). Etengabe eraikitzen ari den kultura izango litzateke eta ez, besterik gabe, beti errepikatzen ari den kultura.

1.4.2.- Euskal kultura eta auzo-kulturak. Espainia eta Frantziako estatuetan nagusitu diren kulturen, erdian kokatuta dagoen kultura berezia da euskal kultura. Bata eta bestea ez zaizkio arrotz gertatzen, kanpoko eraginez ez ezik, euskal kulturaren beraren barnetik ere bereganatzen baititu.

1.4.3.- Euskal kulturaren eta nortasunaren gaurko egoera. Ez dira euskararen egoera diglosikotik sortzen diren arriskuak desagertu, ezta euskal kulturaren eraikuntzakoak ere. Bada euskaldunek, euskaraz, egiten eta bizitzen duten euskal kultura, baita euskotarrek gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntzetan egiten duten Euskal Herriko kultura ere. Bada, jakina, hizkuntzarik gabeko kulturarik ere, artea edo herritarren bizi-kizunak. Guztien artean osatzen dute *euskal herriaren kultura* dei genezakeen euskal kultura bere osotasunean.

1.4.4.- Euskal kultura eta euskara. Euskararen normalkuntzaren eta, direnak direla erabiltzen diren hizkuntzak eta munduko aldaketa azkarrei egokitzeko erak, kulturako gai guztietako sorkuntzaren, ekoizpenaren eta zabalkundearen garapenaren baitan dago euskal kulturaren etorkizuna. Kontuan izan. Apustu bikoitza da, bata besteari lotua. Bi norabideak aurkitzen dira, aldi berean, *euskal literaturaren, euskal musikaren, bertsolaritzaren* jardunetan, euskaratik beste hizkuntzetarako itzulpenetan eta alderantzizko ahaleginetan.

Baina kultura batek eta, hortaz, nortasun batek bere biziraupena nahi badu, bere hizkuntzaren inguruko mundua mantendu eta birkreatu behar du. Kontua ez da euskaraz berea ez den mundu kulturala Birkreatzea, hau da, kultura arloan izaera unibertsala duenetik kanpo. Etengabe mantendu, birkreatu eta birasmatu behar dugu gureak diren bizipen eta sinboloz betetako mundua (abestiak, jantziak, dantzak, irudiak...) jaia bizitzeko moduak, bizitzeko moduak, mitologia ez alienantea eta mundua osatzen duten irudipenak....Hau guztia, gure kultur politikaren barruan egon behar da.

1.4.5.- Euskararen kinka eta politika. Euskaldun gehienek onartua dute politika lagungarria, "ekintza positiboa" ezarri behar dela hiritarrek harreman sozialak dituzten arlo guztietan, hau da irakaskuntzan (agiri, seinale, erakunde, sustapen), alor desberdinetan (administrazio, zerbitzu publiko eta pribatuetan ere gero eta gehiago), jendeari erantzun behar zaion lekuetan. Batez ere, herritarrengandik gertuen dauden zerbitzuetan: osasun-zerbitzuetan, ertzaintzetan, udaletan. Euskaldunek euskaraz hitz egiteko duten eskubidea ziurtatua egon behar da.

Euskarak arreta eta sustapen berezia behar ditu telebista, irratia, prentsa, internet eta bezalako hedabideetan, kultur zerbitzu eta ekoizpenetan eta laneko harremanetan.

1.4.6.- Euskal kulturarentzat erronken ingurumaria. Bi oinarrizko arazok eta bi aukerabidek oso baldintzatutako ekinbideari erantzun behar dio XXI mendeko euskal kulturak, euskotarren kulturak, bere aldetik.

Hauek dira arazoak: a) kultur sorkuntza eta merkatuen salmenta eta nazioartekotzea mundu globalduan; b) Euskal Herriaren ttikitasuna. c) euskara erabiltzen duten eta gure hizkuntzaz eskainitako kultur ekoizpenak gutxi kontsumitzen dituzten euskaldunen ehuneko eskasa. Horrek baldintzatu egiten du bideragarritasuna eta garestitu kultur apustuak eta zaildu neurri handiko ekonomia sortzea. Besterik gabe, kultura-gune indartsuen, historiaren gizartearen eta politikaren aldetik jaun eta jabe direnen ondoan ahul gertatzen da.

Hauek dira aukerabideak, batez ere: batetik, Europako kultur izaeren aldi guztietan zehar, batez ere XIX mendetik, kultura eta historia egiten jakitea: aurrelariekin loturik, norbera maitatuz eta industri eta teknologia esperientzia esagurantsuz; bestetik, euskal kulturarekiko erakundeen sustapen gaitasuna, eta eragileen arteko elkarlana eta gizarte oso eraginkorraren esku-hartzea.

1.4.7.- Apustua egin edo ez egin mundu globalean. Guztion gogo eta ahalegina eskatzen ditu kulturaren garapenak. Izan ere, politikaren eta ekonomiaren ekinbideko leku nabarmenean kokatuta egin behar da kultur politika, itsatsi eta garatuko baldin bada. Mundu global honetan gure kultura hedatu eta beren ezagutza bultzatu beharko genuke.

Beren premien arabera beren baliabideak eta teknologiak erabiliz beren aukerez baliatzen jakin behar dute kultura ttikiek. Horretarako, ordea, sorkuntzarako eta ekoizpenerako apustua egin behar dute, batez ere. Inon baino garrantzitsuagoa da era honetako herrietan. Teknologiaren aldeko apustua eskatzen du horrek, baina baita edukien, ikus-entzulekoen, telekomunikazioen, datuen, teknologiaren, enpresa ttikien arteko sareen aldekoa ere. Hitz batean, herri baten

bizitza eta historia bestek idatzi ez dezan oihal komunikagarri zabal sendoa josi.

Gutxi-asko garrantzitsua den erakundeko sail jakina izateari uzten dio kulturak bidezko ondorioz, baliabide ugariak, kultura sailetik, industriatik, turismotik, ogasunetik, lurralde antolakuntzatik eta abarretik behar dituen guztion eginkizun bihurtzen da bere balio erantsietan gero eta materiagabea den munduan elkarrekin har ditzagun erabakiak eta burutu egitasmoak. Marko honetan hezkuntza saila eta hezkuntza politikaren garrantzia azpimarratzen dugu.

Alde horretatik, Euskal Herriak eta bere lurraldeek teknologi lanabes egokiak erabiltzeko eta horiez ondo baliatzeko gai izan behar dute. Bestela, besteren komunikabide globalizatuen erosle eta hartzaile soil izango dira. Sistema komunikagarri bere-berea behar du, interesgarri zaienaren bila sarera jotzeko bezainbat indartsua. Eduki asko eskaini behar dituzte barnera, kanporantz ere zati bat bai eta alde sentiberetan, hein batean, bizitzeko adina atera.

Gizarte globalizatu honetan non informazio eta jakintza gizarteak gure planetan gertatzen den oro ezagutzeko parada ematen baitigun, administrazioa izango da ezagutza honetarako atea irekitzen duten tresnak eskuratzea bermatu beharko duena eta gure inguru hurbilaren gaineko informazioa eskolan, elkarteetan eta sendietan sustatu beharko duena.

Belaunaldi gazteek beren ingurua, beren errealitate hurbila ezagutzen duten heinean hezkuntza esparru eta kulturalaren artean zabalduko dugu mundu osokoa eta tokian tokikoa bateratzeak duen garrantzia, hau da “glocal” izenarekin ezagutzen duguna: globala pentsatu eta tokian tokiko jarduna egin. Baldintza hauek oinarri direlarik lortu ahal izanda da belaunaldi berriek beren auzoarekiko, herriarekiko konpromisoa hartzea, hau da, beren Herriarekiko konpromisoa.

Izan ere belaunaldiz belaunaldiko transmisioa funtsezkoa da norberaren kulturaren biziraupen, transmisio eta bultzapenerako. Euskal gazteriaren, hau da oraingo eta geroko belaunaldien konpromisorik gabe, bide okerra har lezakete gure helburuek.

1.5.- ETORKINAK, GIZARTEAN TXERTATZEA ETA EUSKAL KULTURA

1.5.1.- Etorकिन ibilbidea. Hegoaldeari dagokienez XIX. mendearen bukaeran, lehen industriarekin eta XX mendeko berrogeita hamar eta hirurogeigarren urteetan gertatutako bigarren industria-gehitzearekin, Euskal Herriaren hiritartzea azkartzearekin batera, oldeka etorri ziren

langileak beste herrialde batzuetatik. Bigarren etorri-aldian, aldaketa sakona jasan zuten Arabak eta Nafarroak ere, auto-gintzako, burdin eta eraldaketen, papergintzaren, mekanikaren, sukaldeko tresnagintzaren edo elektronikoen industrialdeak sortu baitziren beren lurraldeetan. Hirugarren etorri-aldi bat ari da gertatzen orain, txikiagoa baina era guztietako kulturetakoa. Iparraldeari dagokionez XIX. mendearen bukaeratik udatiarren etorrera handia dela eta, bestalde etengabe gure artean gelditzen diren Frantziatik etorritako jubilatuen eraginez, gure kultura eta, batez ere, gure hizkuntza eraso handia jasotzen ari da, folklore hutsean gelditzeko arriskuarekin.

Errealitate historikoak une oro behartu izan du Euskal Herriko kulturaren elementuen berriztatzea eta datozen garaiotan egoera ez da bestelakoa izango. Herrialde eta kultura ezberdinetatik etorritako hiritarren aldetik emango den gero eta integrazio handiagoak behartuko gaitu euskaldun berri hauek egindako ekarpen, eragin eta ohitura kultural berriak geureganatzera eta egokitzera. Kultura aniztasun eta interkulturalitate egoera berri honen aurrean EAJK ahalegina egin behar du pertsona hauek gure kultura barruan sartzeko eta euren kulturaren berri jasotzeko.

1.5.2.- Langileak, zerga, demografia eta integrazioa. Etorkin asko bertan geratzeko asmoz datoz. Beste batzuk gure Herrira datoz abaguneko egoeran. Bi kasuetan lanean ez ezik, zergetan, kulturaren eta demografian ere laguntzaile dira. Elkarrekin ondo uztartzeko etengabeko arretaz eta oharpenaz gainera, sortzen diren gizarte eta kultur eragozpenak mugarritzeko, leuntzeko eta gainditzeko politika eraginkorrak eta aurrerakoiak behar dira, *ghettorik* sor ez dadin eta mestizatzea eta kultura aniztasuna naturaltasun osoz biziz, Euskal Herriko kultura sustatzeko, eta, hor, *euskal kultura denontzat*.

Latinoameriketatik datozen etorkinek, lehendik Espainiatik etorritako gehienek bezala, nekez hitz egingo dute gaztelania ez den hizkuntzarik. Beste etorkinen artean ere nagusi den hizkuntza erabiltzeko joera ulergarria da, noski. Hala ere, etorkinak, lehen eta orain, euskararekin harremanetan jartzea oso onargarritzat eta oso beharrezkotzat jo dugu euskaldunek beti. Elkarrekin uztartze-lana errazten du horrek eta kultura askotako herritarrak sortzen. Atzeritik datozenak, gehienbat gazteak, osoro herrian txerta daitezen, euskarara sarrera erraza eta normala bideratzeko ekimen berriak hartzea eskatzen du. Hala ere, hizkuntzaren aldetik, etorkin gazteen eta berorien seme-alabetan jarri behar dira itzarobiderik handienak. Lehengo etorkinen ondorengoek ez zuten euskaltasuna bakarrik onartu, asko eta asko beste ume eta gazteekin batera saiatu dira euskara ikasten.

1.5.3.- Ez dira gauza bera gizartea eta erkidegoa. Ez dira gauza bera, baina biak txirikordatzen dituenak "herritarren gizarte" indartsua, errespetatua

eta malgua eraikitzen du (gizarte mugimendu, erakunde pribatu eta sozialak, kritika bide, erlijio sinesmenak, ekinbide eta abar); eta erakundeak eta gizartea elkarlanera bultzatzen dituen elkarte ugariarekin.

Gizarte oso egituratua dugu, nahikoa aurrerakoia, Espainian Frantzia eta Europan baino, batez beste, jende gehiagok hartzen du parte sindikatuetan eta politikan. Hala ere, ez gara politikan gehiegi tematzetik eta kiribiltzetik libratu. Gizartean oso nabarmenak diren sentiera desberdinak direla eta, *tabu*, aipa ezinak, bihurtu ditugu gai batzuk, eztabaidak eta haserreak saiheste arren. Horrek, jakina, aurreko bi hamarkadetan ez bezala, sentieren desberdintasunak areagotu egin ditu eta gizarte harremanak egituratzea zaildu.

Halaber, erkidego nortasuna gizarte maila gehiago landu behar dugu, bai kultur nortasunean, bai herri nortasunean. Alde batetik, hezkuntzak, hedabideek eta kulturak, aurrerantzean era baketsu, eraginkorrean eta adostasunez eta historiak jipoitu duen kulturari gehiago lagunduz hezurmamitzen jarraitu behar dute; eta, bestetik, bakoitzaren askatasunak, gizarte harreman irekietan, nortasunaren osagaiak finkatzen aritu beharko du, alde batera edo bestera.

Hain anitza denez eta eraikitze bidean dagoenez, gizartearen nortasunaren egituratzea sendotu beharra dago. Hala ere, hori ez da herritarren arteko ehundura indartsuak, anitzak, mestizoak eta eraginkorrak dituen eta herri-arazoan ia etengabeko eta zernahitako mugimenduan dabilen gizarte egituratze indartsuarekin uztar-ezina. Arrazoizko politika Estatuarekin bakarrik batzen dutenek "astakirten" fama erantsi badigute ere, demokraziaren balioetan eta gehiengoan eta gutxiengoan arteko joko demokratikoan dugun ustea eta herritar portaerarekiko dugun onarpena oinarri sendoak dira erkidegoa eta gizartea txirikordatzeko.

II.- EUSKAL KULTURAREN EGITURA: AHULEZIEN AZTERKETA ETA ABIAPUNTUAK

2.1.- AZTERKETA OROKORRA

Euskal kulturaren gaineko diagnosi orokor eta objektiboari ekin baino lehen, gogoratu beharra dago gure kulturak berreskuratze prozesu sakona garatzetik datorrela eta zalantzarik gabe eragina du eta izango du gutxienez epe ertain batean, gure kulturaren jarraipen eta ondorioetan, bai nortasun aldetik, baita kulturaren industriaren ikuspuntutik hartuta.

2.1.1.- Ekoizpen eta komunikabideen egituren ezaugarriak bateratuz ondorio labur batzuk atera ditzakegu:

- a) Hauek dira euskal nortasunaren arazorik nagusienak: kultur ondare ekoizpen urria, euskararen erabilera mugatua eta, ondorioz, euskal kulturaren garapen txikia; aldi berean, kultura berezituagoa, gizartean txirikordatuagoa eta gizarteratuagoa egiten lagunduko duten kulturari buruzko diru-baliabidez hornitua den politika osoagoaren beharra.
- b) Gainditu beharreko koskak: hedabideen kalitatea, aniztasuna eta deontologia; hedabideen emanaren oreka, horretarako behar diren egiturak moldatuz; egunkariek eta irratiek esku bakar batzuetan erortzeko duten arriskua; hedabideetan euskara gehiago bultzatu beharra; merkataritzak eta ideologiak gutxiago baldintzatzen duten prentsa.

2.1.2.- Azterketa orokorra. Kultura, oro har, hiru alorretatik (ondarea, artea eta kultur industria) begiraturik Kulturaren Euskal Plana-Plan Vasco de Cultura (KEP-PVC-k) izen hau jarri zion egoerari: AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indar-guneak eta Aukerak). Horri, jakina, sistema komunikagarriaren azterketa gehitu beharko genioke. Azterketa horrek barneko alde baikorrak eta ezkorak (puntu indartsuak eta ahulak) eta ingurumarikoak (aukerak eta mehatxuak) erakusten ditu. Hala ere, azterketa zehatza baino panorama osoa hartzen duen argazkia gehiago da, azterketa batek arazoak gehiago zehaztu, berezi eta mailakatu behar baititu.

Funtsean, euskal kulturaren ekoizpen egituraren ikuspegi hau eskaintzen digu azterketak: herri baten kulturaren alderik nagusienetakoak dira kultur industriak (diskoak, liburuak, zinea, prentsa, irratia, telebista, konputagailuentzako materiala, internet

bereiziki...). Hezkuntzarekin eta erakundetzearekin batera, gizarteratzearen osagai erabakigarriak dira. Esparru horretan sortzen edo esparru horren bidez zabaltzen da kultura normalduaren zatirik handiena. Gaurko gizarte aurreratuan ezinbestekoa da kultur eta hedabideen industriaren sistema eskuetan edukitzea. Baina, ez da ahaztu behar kultur industria ez dela “kultura”, beronen elementurik esanguratsuenen artean dagoen arren.

Euskal kulturaren eta hedabideen ezaugarri nabarmenenak bereziz, eta lehen mailako kultur ekoizpena (argitalpena, diskoa, ekoizpena, ikus-entzunezkoak, iragarki asmaketa...), hedabideen egitura (prentsa, irratia, telebista...) eta etxeko kultur ohiturak hor sartzan ditugula, ondorengo ezaugarri hauek seinala ditzakegu sarrera gisa:

Lehenik, eragin bikoitzak estutzen edo erasaten ditu kultur praktikak: edukiak eta moldeak ezartzen dituen nazio-gaindiko kultur globalak eta Estatu-nazioaren kultura nagusiak. Halaber, kultur sortzaile eta kontsumitzaileen urritasunak eta gure hizkuntzaren berezitasunak Euskal Herritik kanpora zabaltzea eta kontsumoa zailago egiten du. Horrek dakar kultur ekoizpenaren egitura ez osatzea, ekoizpen mugatua izatea, nazio-gaindiko kulturen nagusitza eta, ondorioz, iraunkortasunik gabeko eta burujabetza gutxiko kultur egitura.

Bigarrenik, lehen sorkuntzako zenbait esparrutan sortzen dira hutsunerik handienak. Esate baterako, betikoetan (arte, antzerkia) eta hedabideetatik zabaltzen diren oraingo kultur industrietan (liburu, disko, zine eta iragarkiak). Aitzitik, arte plastikoetan eta ikus-entzunezkoetan ekoizpen polita dago. Hedabideetan ere garapen garrantzitsua duen egitura komunikagarria osatu da.

Hirugarrenik, euskara hizkuntza bereziki gutxitua da hedabideetan eta zinean, hizkuntzen ohiko erabilera baino askoz murriztagoa du. Baina argitalpenetan eta musikan sasoiko ekoizpena du.

Laugarrenik, zabalkundeari dagokionez, eta hori da kulturaren eta komunikabideen aukera eta eskaintza galgatzen dituen, argitalpenaren, zinearen eta diskoaren esku dago batez ere. Irratiak eta telebistak, berriz, egitura desorekatua dute.

Bosgarrenik, Europako batez bestekoarekin konparagarria den herri industriatsuen mailan daude kultur kontsumoa eta eskea (adibidez, prentsa, irratia eta liburuak irakurtzea edo diskoak entzutea eta zinera joatea).

Seigarrenik, alor batzuetan ments edo hutsune handia dago ekoizpenen azpiegituretan. Argitalpenen ekoizpenetan, nahiz eta mugatua, egitura on samarra dago. Telekomunikazioetan ere, gutxi-asko eguneratuak, badaude sareak. Ikus-entzunezkoetan askoz ere mugatuagoak dira ekoizpen egiturak.

Zazpigarrenik, ia hutsa da kanporako egiten den kultur ekoizpena. Egiten dena ere Espainiako merkatutik barrena zabaltzeko. Euskal hiritarrek ondare kulturalaren gozamenerako duten eskubideari dagokionez, ahalegin handiagoa behar da osatzen duten ondasunen babes juridikoan eta baloreak zabaltzeko orduan.

Azkenik, badira kulturarako politika eraginkor orekatzaileak; Ikerketa eta Garapena (I+G)rako, berriz, Estatuan baino bi aldiz gehiago Barne Ekoizpen Gordina (BEG)ren arabera, baita teknologi berrien sare eta sustapen egitasmoetarako ere, baina edukien arreta berezirik gabe.

2.1.3.- Komunikabideen egiturari buruzko azterketa. Euskal Herriko komunikabideen mapa ez da erabat aldrebesa baina ezta gustagarria ere.

Dugun komunikabideen sistema mugatua eta besteren eskukoa ez dagokio herri erakundetu eta Europan kultur egitasmo bat duen bati. Euskal sistemak ez ditu hedabideetan dauden premiak eta eskeak inolaz ere asebetetzen.

Gure komunikabideen eta gizartearen egitatearen artean desorekak daude, nabarmena prentsari dagokionez. Nahiz eta diru publikoarekin orekatzen saiatu, enpresa egitasmoen eta gizartearen onarpenaren esku baitago, batez ere.

Herriak nahiz bere historia gogoan izan, nahiz gizarte bezala eta kulturalki eraiki eta gehienek beren kabuz eta era askotara pentsatu, dena aldatuko da komunikabide gehienak arrotzak eta kultur, hizkuntza eta komunikazio erantzukizunik gabeak eta gora-gailu indartsukoak badira. Baliabideak, ikus-entzunezkoak batez ere, beren mezu eta edukietan arrotzen esku badaude eta gainera mezu politikoa nahasten bazaie, kultur bizi-kizun desberdinak indartzeko arriskua ez ezik, luzarora muturkako arriskua ere ekar dezakete.

Gaur oraindik ez du eragin horrek gizarteko euskal pentsamendua erabakitzen. Baina gero eta gehiago eragiten dio, tematutako eta uzkurtutako esparru publikoak sortzen ditu, erkidetasunaren garapena eta burubiderik eraikitzaileenak galgatzten, *feed back* delakoa gizarteko aurrerapen eta oharpenera bakarrik mugatuz.

Hitz batez, horrek guztiak zehar arazo batzuk (eta noski, irtenbideak) ondorioztatzen ditu: hedabideetako kalitatea, aniztasuna eta deontologia hobetu beharra; gehiegizko pilaketa (prentsa eta irratia) gertatzen ari denean mugatu beharra; hedabideetan euskara bultzatu beharra; merkataritza eta ideologiaren eredu profesionalaren gainetik prentsa orekatuagoa egin beharra.

Gizartea bateratzeko eta heldutasunera irits dadin eta herri-nortasuna eraiki dezan joan-etorri handikoa da, komunikabideen politika bere

izaera estrategikoarengatik. Gaurkoetatik erabat desberdina den komunikabideen egitura lortu behar da. Oso garrantzitsua da informaziorako, balioen zabalkunderako, hizkuntzen ohituretarako, gustuen hezkuntzarako edo agendagintzarako.

2.2.- EUSKAL KULTUR POLITIKAREN OINARRIZKO ABIAPUNTUAK

2.2.1.- Euskal kultura eta ekonomia. Kulturaren eta komunikabideen alorrean teknologi/industrietako apustuak ekonomiaren alorra bera gainditzen du eta kulturaren beraren etorkizuna erabakitzen. Ekoizteko eta garatzeko ipintzen diren bitartekoen esku da kulturaren etorkizuna.

Baina norbere kulturaren aldeko apustuak ere baditu barne ekonomiarako abantaila batzuk, bai hurbiltasunak eta ezagutzak ekoizpen harremanetan duten zerikusiagatik bai ekoizpenak eta kultur kontsumo mailak -nortasun kezka badu areago- BEGean eta ekonomi eta gizarte ehundura guztian eragin zuzena duelako.

Horrek guztiak erronka berria jotzen du. Ukitzen den ekonomian, burdinen eta makinerien, antolamenduan eta lanbidean, ekoizpenaren ahaleginean eta eraginkortasunean nabarmendu gara euskaldunok. Ahalegina egin beharko dugu . Ukiezinen eta jakintzen ekonomiara iragan behar da orain; balio erantsietara, zerbitzuetara, eskubideetara, berezitetara, sarrera eskubideetara eta materiari gabeko jardueretara; patenteetara eta teknologietara; ezagutzetara, etengabeko trebakuntzara, markak eta modak sortzera eta adierazpideak eta *on line* edo *off line* delakoak edozein esparrutan, baita kulturaren ere, indartzera eta gurutzatzera. Materiaren, burdinaren, ekonomiak ez dio ukiezin, diseinuen eta kulturaren ekonomiari lekukorik oraindik eman, ez behintzat behar den heinean eta behar bezala sinesterik.

Egokitzeko nahitaez egin beharrekoa izateaz gainera, baditu abantaila gehigarri batzuk: barne merkaturako ekoizpeneko arlo ekoizlea ezinbestekoa da; era askotako ekonomia berria laguntzen du; kanpokoekin trukatzeko balioko luke; ibilbide horretan, gainera, norbere kultura eta erkidegoa berreraikitzen dira, batez ere.

Kulturaren eta komunikabideen arlo handi eta zabal hau kudeatzea eskatzen du horrek, kultur premiei eta lehentasunei begira, zeharkako eraginak kontuan izanaz; ekonomi eta gizarte sistema osoa trebakuntzaz eta sorkuntzaz ernaltzen du; teknologi, ekonomi eta gizarte aldatetara egokitzeko baldintzak sortzen ditu; sistema osoa elikatzen du (adibidez, ezinezkoak lirateke telekomunikazioak barnean burubiderik eta egitaraurik ez balego) eta teknologia aurreratuetan dirua jartzeko baldintza erakargarriak eskaintzen ditu.

Kultur Adierazpide Desberdinei buruz UNESCOk 2005eko urrian egin zuen 33. Jardunaldi Nagusien Mundu Batzarreko ondorioetan nazio guztientzat balio duen doktrina erabaki zuen. Munduko Merkatu Antolamenduak gerora har ditzakeen erabakietan ere betetzekoa, hau da, herriek, txikienek batez ere, beren kulturen apustuan, beren baliabideak elikatuko dituen aldeko politika bereizgarriak ezartzeko eskubidea dutela, alegia. Beste alor edo emaitza ekonomikoek baino muga zabalagoak izango lituzkete. Kultura ez da beste salerosketako edozein jenero eta industri politikaren gaineratik eta alde askotatik (fiskal, hezkuntza, kanpo harremanetatik, industrietatik) sustatu daiteke bitarteko eta laguntza bereziki. Alor berezia da eta trataera berezia izan dezake.

2.2.2.- Geure ekoizpen alorraren beharra. Ezinbestekoa da gaurko gizartean ondasun, sorkuntza eta tokian tokiko geure kultur eta komunikabideen ekoizpen sistema edukitzea. Izan ere, baliabide batzuen inguruan eta bere arazoek kudeaketan egiten da erkidegoa.

Azken urteotan, kulturak, oro har, eta kultur industriek, bereziki, herri-erakundeek arreta piztu dute, batez ere, hirien eta lurraldeen ehundura ekonomikoa berregituratzeko eta garatzeko tresna gisa. Nahiz eta ikuspuntu desberdinetatik egin, kultura eta komunikabideak denek jomuga bihurtu dira lurraldeen garapenerako nazioarteko eremuan ezartzen ari diren estrategia berrietan.

Lurralde egituratuetan, bereziki, ekonomi ehunduraren aniztasunarekin eta teknologien moldaketekin batera, ekonomi eta gizarte krisia gaitzeko, funtsezko erronka gisa, gogo eta espiritu eragile eta berritzailea berpiztu da. Alde horretatik, "kultura eta komunikazioa" ez da emaitza biderkatzaileen bidez eta enamuntzeko gaitasun izugarriaz edo kanpora begira zabaltzen duen irudi baikorraz garapen ekonomiko handia dakarren alorra bakarrik, teknologiaren eta gizartearen berrikuntzarako eta egokitzapenerako iraganbidea ere bada. Sail horretan eragileena ikus-entzunezkoen alorra da, zentzu zabalean harturik, bai zehar-zabalkundeagatik eta bere malgutasunagatik bai bere joerengatik (sare nagusiek, gizarteko erabilerekin gero eta jendetza ugariagoaren eta anitzagoaren eskea dakarte eta, hein batean, gainontzeko kultur ekinbide guztiak antolatzen ditu).

Eragile askoren esku dago lurralde bateko kultur bizitasuna: kulturarako jartzen diren diruen eta laguntzen esku, ahalbide profesionalen eta sarean elkartuen esku, hedabideen eremua izatearen esku, kulturaren zabaleraren edo gaiak elkarrekin gurutzatzearen esku. Elkarren artean kidetasunak sortzen dira, gainera, adibidez ospea ematen duten kultur ospakizunen, erakundeek gune eraginkorren, nazioarteko sareetako inbertsioen eta partaidetzaren artean.

Dirua ematen dutenen ondoan, gero eta garrantzitsuagoak dira diru etekinik gabeko eremuak, kulturaren eragile direnak, gizarteko kultur eskeari hurbiletik eta kalitatez erantzuten diotenak eta herri-erakunde eta gizarteko taldeen elkarlanaren ekimen direnak.

2.2.3.- Kultur sorkuntzaren oinarria. Sortzaileak adoretu behar ditugu eta gure ekoizpenaren kultur esparrua sendotu bai kanpora begira eta bai barrura, gure herrira, begira. Aukera hobeak eta etekin hobeak eskaintzen dituzten eremu eta merkatu zabalagoen bila kanporatzen diren euskal sortzaileak bertan geratzeko modua hori da.

Bai Kulturaren, oro har, eta bai gaur egungo kulturaren sorkuntzaren, berrikuntzaren eta komunikazioaren hasieran sortzaileak daude. Kulturaren industrializazioaren eta etengabeko teknologi garapenen garaian are eta egiago da hori.

Gaurko gizarteetako kultur eta komunikabideen tramankulu itzel honi eusteko sorkuntza kopuru handia behar da. Balio, estetika, narrazio eta kulturaren hizkuntzetan hain desberdinak, aberatsak eta korapilotsuak diren gizarteen eskakizunei erantzuteko gai diren kalitatezko proposamen berritzaileak dira beharrezko, batez ere.

Lehendik dugun kultur altxor eta ondaretik abiatuz, sorkuntzak egiten du, materiari gabeko balio berri erantsien bidez, kultura eta kulturak berritzeko miraria. Gero, gizartearekin, bezeroekin, dituen harremanen esker, gizarteko balioak eta herri-nortasuna berritzen dira. Kultur ekoizpenei eta kultur eta komunikabideen jarduerari sorkuntzak ematen die zentzua eta zilegitasuna.

2.2.4.- Antolaketa, partaidetza eta elkarlana. Bereizitasunarekin eta osagarritasunarekin jokatu behar du euskal kulturak, munduan bere "tokitxoa" bilatu behar du, eta garapenean esku hartzen duten eragile publiko eta pribatuen ekinbideetan hobeto uztartuz jokatu behar dute.

Baina ez dira oso baliagarriak izango gure nortasun eta kulturarako industria kultural propioa, komunikazio sareak edo sortzaile sarea, horrek guztiak ez baditu Euskal Herri osorako eduki sarea, edo sinbolo, bizipen, jarduteko moduak, sinismenak eta eguneroko ohiturak zaintzen.

Herri-erakunde eta gizarteko eragile eta taldeen antolaketan eta elkarlanean aldaketarik gabe ezinezkoa da hori. Kulturaren arduradunen sailen arteko koordinaketa soila da. Baina aurrera egiteko herri-erakunde arduradunen artean goitik beherako banaketa eta zeharkakoetan koordinaketa hobea behar dira.

Argi izan behar da udalerrri, herrialde eta Herri gisa dugun indar-gunea izango dela foroak eta topaketarako eta koordinaziorako tresnak

garatzeko gaitasunaren arabera. Instituzio arteko koordinaziorako tresna hauek izango dira kultura estrategia ezberdinen aplikazioan gure lana gidatuko dutenak.

Testuinguru honetan sakondu beharko genuke subsidiarotasun printzipioan; honen inguruan ohiko formulaz gain interes orokorreko entitateekiko bestelako harreman batzuk aztertu beharko genituzke.

Goitik beherako banaketarekin batera, kultur politikak zeharkako koordinaketan egin behar du aurrera. Besteak beste, kulturgintzari zergen politika, finantza politika, hezkuntza, industria, turismoa, lurralde antolaketara, kanpora begirako ekinbidea, etorkinak eta abar txertatuz.

Bestalde, kulturaren kudeaketa profesionalizatzen ari denez eta kultur arloetako elkarte profesionalak ugaltzen ari direnez, kalitate maila hobekia lortzeko eta kulturaren eragile pribatuen arteko elkarlana hobeto uztartzeko bide dira.

Lurralde antolaketaren politikatik at egon da kultura, komunikabide bakarrak errepideak eta trenbideak bailiran. Baina funtsezko galdera da: "lurralde historikoen" gaitetik nola erraztu kultur gune eta esparruen arteko komunikabideak? Hitz batez, nola lurraldeak txirikordatu Eusko Autonomi Erkidego mailan eta Euskal Herri osoan. Lurralde arteko kultur sarearen alde apustu egitea komenigarria litzateke, baita, bakoitzaren eskumenak kontuan izanaz, jokabide bateratuak izatea dirulaguntzei eta espezializazioei begira eta Europar Batasuneko trebakuntza eta sorkuntza sustapen egitasmoekiko loturari buruz.

Gizarte eta sortzaileen partaidetza. Ezinbestekoa da. Kulturaren Eusko Kontseilua eta bere lan taldeak dira hasiera. Kudeaketan ere elkarlana bultzatu behar da. Herri-erakundeek erabaki eta gizarteko taldeek eskatu, eredu hori zahartu da. Agintariak estutuz bakarrik lor daitezkeela gauzak pentsatzea ustela da. Herri-erakundeen eta kulturaren arloko elkarte eta taldeen artean arrazoizko eta elkarrekin onartutako irizpideetan oinarritutako eredu hitzartuari egin behar zaio bide.

Elkarlan publikoaren eta pribatuaren egiturak. Ezinbestekoa da herri-erakundeen lana kulturaren esparruan bai inbertsioei eta egitasmoei dagokienez bai sorkuntza pribatuaren sustapenari eta laguntzari dagokienez. Herri-agintarien lan hori ez da Eusko Autonomi Erkidegoan hutsaren hurrengoa izan. Orain, berriz, sorkuntzara, ekoizpenara, trebakuntzara eta kulturaren zabalkundera bideratu beharko luke, motore eta suspertzailerik eginkizuna betez. EITBk ere zeregin handia du horretan. Baina beharrezkoak dira elkarlanerako era berriak.

Euskal kultur industri publiko eta pribatuak gizarteko ondarearen zati dira. Bietara iristen den zerbitzu sozial eta publikoaren politikak uko

egin behar dio denen maneatzailerik eta gidatzaile edo negozio pribatuentzat diru-emaile huts izateari. Industri ekinbide pribatu edo mistoei ematen zaien laguntzak hartzaileei kontuak eskatzeko erantzukizun zorrotza darama, garapenaren bidetzat jo diren jokabideen eta emaitzen neurketen arabera. Gizarteko kultur sorkuntza eta zabalkundeko industriei eta sortzaileei eman behar zaizkien laguntzetan kalitatetik onena eta eraginkortasunik handiena erakutsi dutenen alde jokatu behar da.

Herri-erakundeek esparru berri hori sortzen laguntzeak ez du errentagarritasuna eta herri-diruaren kudeaketa zuhurra kontuan izan behar ez dituenik esan nahi. Aitzitik, aparteko diru horrek berak eskatzen du ekinbideen baliotasunaren eta emaitzen kontu ematea.

Kontuan izan behar da administrazioa ez dela kultur dinamizazioan eragile bakarra. Hortaz, bi jardunbidetan sakontzea dago gure egitekoa eta gizartea kultura kontsumitzaile hutsa izan ez dadin.

Gizarte-ehuna indartzea izan behar da gure egitekoa elkarteak eta berauek hartutako konpromisoak oso modan ez dauden gizarte honetan. Beldurrak uxatu beharko genituzke eta gizarte mailan eta inolako agenda politikorik gabe lan egiteko prest dauden taldeekin elkartu beharko genuke.

Honek guztiak suposatzen du jardunbide egonkorra ezartzea, gizartearen eta hiritarren aldetik jarrera aktiboagoa sustatuko duena.

Kulturaren inguruko politikek interes publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko oreka bilatu beharko lukete. Gehiegi instituzionalizatzeak edo merkatuaren garrantzi handiegiak arriskuak dakartzate eta sistema kulturalen garapen dinamikoa oztopatzen dute. Hiritargoaren ekimena, bai banakakoa baita gizarte taldeen kasuan, bereziki sustatua izan behar da baina bakoitzaren ardura eta zilegitasun esparrua errespetatuz.

Halaber, lerro estrategiko honek hainbat errealitate kulturaleri ere eman behar die erantzuna bai ume, gazteri, familia esparru, heldu eta hirugarren adinekoei begira. Eta egitasmoek elkarrekiko harreman handiagoa izan beharko lukete eta, modu berean, gizarte sektore bakoitzaren ezaugarriei erantzun hobea eman ahal izateko gaitasuna izan beharko lukete.

Alde horretatik, komenigarria dirudi Kulturaren Eusko Kontseilua edo Kulturaren Euskal Plangintza mugiaraziko duen eta ekoizpeneko katearen aldiei (sorkuntza, ekoizpena, zabalkundea, banaketa) begiratuko dieten Arte eta Kultur Industrien Institutua bezalako egitura mistoak garatzea. Laguntzak, jakina, ez daitezke betiko kopuru finkokoak izan, aldakorrek diren premien eta kultur arloen gorabeheren arabera baizik eta subentzionagarrien gaintetik finantza, industri eta sustapen ekinbideak kontuan izanaz.

III.- KULTURAREN ETA KOMUNIKABIDEEN POLITIKA

3.1.- EGITASMOA ETA AUKERA

3.1.1.- Euskal Herrian kultur errealitate desberdinak daude, hala ere, Eusko Jaurlaritzak Eusko Autonomi Erkidegoarentzat orain dela gutxi kulturaren Euskal Plangintza jarri du. Plan hau, aukera moduan eta beste errealitateak kontuan hartuz, hornitzea izango litzateke oraingo bidea.

Orobat, teknologi, trebakuntza (*know-how*)-en, I+G+I-n, informatika, finantzaketa, antolaketa zerbitzuak eta abar asko garatu dira, materialen antzinako industriaren ondorioz. Informazioko teknologi berrien erabilera ere handia da, gainera. Baina beste zerbitzu batzuen aldetik eta ukiezinak diren balio erantsien ekoizpenaz ez daiteke berdin esan: kulturen, trebakuntza sail guztietan, diseinuan, modan, gizarte bizitza publikoaren eraikuntzan, eskubideen erabileran...

Aukera handikoa da Euskal Herriarentzat une hau, eskuratutako jakinduriaz, kulturaren nazioartekotzarren eta hemengo premien arteko elkarrizketaz, kulturak garapenean duen eginkizunaz eta digital kulturaren jaiotzaz baliatzen bagara. Baliatzeko baldintza epe luzeko egitasmoa burutzea da. eta, lehen ez bezala, kulturen diharduten eragile taldearen esku hartzea: sortzaileak, ekoizleak, herri-erakundeak, hezkuntzak eta finantza sistemak. Kulturak duen indar ekonomikoaz jabetu behar da. Euskal Herriko mugetatik kanporantz ekoitzi beste aukerarik ez da. Horretarako, kalitate onekoa egin behar da, kulturen berezitu edo trebatu, euskal nortasunetik abiatuta.

3.1.2.- Hauek dira Euskadiko kultur eta komunikabide politikaren erronka handi batzuk:

- a) Sorkuntzaren, euskal kultur ekoizpenaren kalitatearen eta kultur zerbitzuen alde egiten du apustu.
- b) Euskarazko kultur garapena bultzatu.
- d) Estrategikotzat jo kultur alorraren garapena, kultur industriei eraginez batez ere.
- e) Galga desberdinez jokatu baina balio katearen aldi guztietan.

- f) Adierazpen artistiko sormenaren aldeko apustua, kultur alor guztien oinarri gisa.
- g) Euskal kultur ondarea zaindu eta zabaldu.
- h) Epe ertainean komunikabide sistema osatu eta orekatu.
- i) Kultur ekinaldien eskea gehitu eta kulturaz interesatutako jendea ugaltu.
- j) Euskal kultura kanpora zabaldu.
- k) Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilera kudeatu kultur arlo guztietan: ondare kulturala osatzen duten ondasunak digitalizatu eta ekoizpen berezietan, *feed back* sare indartsuetan eta digital formatu desberdinetako sarbidean amaitu.

3.2.- KULTUR POLITIKA ETA JARDUNBIDEAREN IRIZPIDE EDO ARDATZAK

Kultur politikaren ardatz batzuk. Eusko Autonomi Erkidegoarentzat egindako Kulturaren Euskal planaren iradoki batzuk eskaini nahi ditugu proposamen gisa.

Lehenik, kezka bat. Ezagutzaren eta ukiezinen garaian, kontua ez da, agian, edukiena. Ez da, beraz, industriren edukietatik hasi behar. Giza baliabideetatik, sorkuntzatik, prestakuntzatik, esperimentatzetik, sarbidetik, irudimenetik, jakintzatik, ezagutzen *mix* edo nahasketatik... hasi behar da. Pentsaeraz eta jokaeraz aldatzea eskatzen du horrek, ezagutzari, kulturari eta komunikabideei lehenetsua emateko. Horretarako, berriz, ezinbestekoa da aurrekontuen apustua, ez baita unean uneko premien arabera izan ohi. Hau da, une honetan ezinbestekoa da gizartean bertan inbertitu behar da adimenezko sare zabala sortuz. Ezin dugu ahaztu, gainera, pertsonak jokatu behar duen papera izan ere, jarrera aktiboa izango du kultur gintzan, herritar guzti-guztiok kulturaren eragile izan gaitzen.

KEP-PVC-k hauxe dio hitzez hitz: *lehenengo ahalegina giza baliabideetan, geuregan; ezagutzan eta bere erabileran; trebakuntzan eta apendiz-jean; sorkuntzaren jalgipenean eta estimuan nola orokorrean hala ekitaldiari begira, balio berrien bila dabilen zuzendari gaztea izan edo eskarmentukoa izan. Alde honetatik ere sorkuntzaren hamarraldia izango da. Aurrerago beste honoko hau dio: Industri ondoko ekonomian ez da nolakotasunaz eta ukiezinez (...) bakarrik apustu egin behar. Kultur alorrean berezitu behar da, gizartearengan eta ekonomian eragin itzela duena baita.*

Bigarrenik, bikoitza litzateke apustua. Batetik, nortasunaren alde, euskararen ekintza bereizgarriaren politika, ondare historiko-artistikoa berreskuratu, gure Herriaren izaera ekintza kulturalak (herri kirola, dantza, bertsolaritza, gastronomia...), euskal musika tresnak, antzinako ogibideak; eta bestetik kultur joera berriak, beste kulturekin eta barne aniztasunarekin harreman zabalak eta teknika berrien, formatuen eta teknologien erabilera. Horrela:

Euskal kulturaren sustapenerako "Catálogo Colectivoa" garatzea eta Euskal Bibliografia burutzea bezalako ekinbideak egin daitezke; liburugintzan, diskogintzan eta ikus-entzunezkoetan politika koordinatuak; euskarazko ekoizpenak bereziki lagundu, kalitatezko irizpideen arabera; itzulpen politika zehaztu, barruko eta kanpoko merkaturako, euskarara itzultzen direnentzat; zinea eta "TV filmak" euskaraz egin urtero; zinearentzat bezala telebistarentzat ere bikoizketa gehitu, gutxieneko eskaintza ziurtatuz eta aretoetan euskaraz emanez etengabe. DVD-Bideoaren merkatuari dagokienez, euskarazko bertsioak daudela bermatzea, haur eta gazteentzako zine ekoizpen guztietan eta hezkuntzarako erabil daitezkeen dibulgazioa eta prestakuntza produktuetan emanaldien eta ekoizpenen zenbatekoa erabaki ikus-entzunezko zerbitzu publikoetan.

Hirugarrenik. Kultura demokratizatzeak dakar kultur jardueretan aktiboagoa, parte hartzailea eta sortzailea izango den gizarterako bidea hartzea. Berarekin batera dakar modu zehatzago batean Administrazioaren esparrua definitzea eta gizartearen berezko jarduerarako gune eta aukera berriak sortzea.

Laugarrenik, politika integrala egin behar da. Balioen (batez ere trebakuntza eta zabalkundea) katea osoa zaindu behar da. Subentziogarririk baino harago doazen politiken esperientziaz baliatu behar da, adibidez zerga, industri, finantza, kultur enpresen mintegi. Trebakuntza, marka politikaz. Horrek etengabeko koordinaketa eskatzen du herri-erakundeetan eta mundu pribatuarekin, sortzailearekin eta gizartearekin.

Bosgarrenik, kultur arloa hazten ari den arlo estrategikotzat hartu behar da, bai kulturaren aldetik eta bai ekonomiaren aldetik. Erakundeen laguntzaz baina ahal dela bere burua mantentzeko modukoa izan behar du, kultur ekonomi egitura pribatua eta publiko sendoa lor dezagun. Kulturaren eta ekonomiaren aldetik lehentasunezko alor bezala hartu behar da kultur industriaren esparrua, Diru publikoarekin bakarrik ezin daiteke kultura sortu. Ahal duen neurrian bere gisa bizitzeko den eta bere burua mantentzen duen kulturaren ekonomi egitura ahalbideratu behar du diru publikoak. Adibidez:

Ikus-entzunezkoentzat osatzen den "cluster" edo multzo hori azaltzen ari diren beste esparru estrategikoentzat ere tentagarria da. Ez dezagun ahaztu kultura digitala, hizkuntzak gurutzatu egiten direla ikustekoetan, entzutekoetan eta idatzitakoetan. Gainera, kultura industrializatuak eta digitalak koordina gai izan behar du Eusko Jaurlaritzako Sailen (Kultura, Industria, Lehendakariordetza) artean.

Arte eta industri guztiak kontuan izan arren eta daitezkeen arlo guztietan berezitu arren, herri ttiki batek nekez egin dezake kultur industriaren eta sail guztien garapeneraren

aldeko apustu orokorra. Alde batetik, euskara eta gure gurea den berezko kulturaren adierazpideei eta, beste alde batetik, ikus-entzunezkoei eta multimediei eta kultura digitalari lehentasuna ematera behartzen gaitu horrek.

Seigarrenik, ondarearen esparruan ondare guztiak ziurtatu eta balioz hobetu behar dira. Kultura digitalaz baliatu behar da horretarako (liburutegietan, artxibategietan, loturetan, berrargitalpenetan) eta, batez ere, Euskadiko Liburutegi Nazionalean eta Artxibategi Nazionalean. Halaber, ezinbestekoa da museo plangintza ere. Museo egitura berrian dirutza handia sartu denez, erakusleho hori beste euskal egitasmoetara hurbiltzea eta gure artista gazteen eta kalitateko beste euskal museo eta kultur eskaintza eskura jartzea komeni da. Eta ez dezagun ahaztu Euskal Herriko Historiaren eta Euskal Gizartearen Museoa, gehienak onartua, zor dugula, ideologiak aparte, herri-memoria finka dezan, Katalunia edo Quebec-en bezala.

Zazpigarrenik, sorkuntzari arreta, antzerki, plastika, literatura eta musikako arte guztien garapena ziurtatzeko. Ezinbesteko oinarria da hori kulturaren ekoizpen, berrekoizpen eta komunikabideen esparruarentzat. Horrek, berriz, prestakuntzaren -adibidez, Arte Eszenikoen Eskola Nagusia- aldeko apustu berriak eskatzen ditu, eta sorkuntzarentzat, ekipamenduentzat, ekoizpen eta ikuskizun azpiegiturentzat laguntzak.

Zortzigarrenik, sendotasun desberdinekin jokatu behar da, baina balioaren kateen aldi guztietan. Pribatuak edo publikoak, kultur balioaren katea maila guztietan eragitea eskatzen du herri-erakundeen bitartekotzak. Maila bakoitzari oreka eraginkorrean laguntzea ezinbestekoa da: trebakuntza, sorkuntza, ekoizpena, eskubideen kudeaketa, zabalkundea, sustapena eta banaketa. Batez ere ahulenei lagundu behar zaie gehien gaur egun: trebakuntzari, sorkuntzari, promozioari, eskubideen kudeaketari eta zabalkundeari. Kulturaren aurrekontuetan laguntza iraunkorra eskatzen du horrek, garapenarentzat baliagarria dela jakinik kulturaren ekoizpena. Horrela:

EITB eta kultur taldeen arteko elkarlana hitzarmen iraunkorren bidez bideratu beharko litzateke. Epe ertainean promozioa azpimarratu beharko litzateke, gainera: agenda, literatura, musika eta zineari buruzko egitarau aiposekin, iragarki merkeekin eta gure sortzaile eta artisten agerraldiekin. Aldi berean, kultur industriaren zenbait ekoizpen edo sorkuntzaren berri eman beharko luke Euskal Irrati Telebistak eta, gainera, dirua jarri sorkuntzako ikus-entzunezkoetan.

Bederatzigarrenik, Euskal Herri osoari begira egindako politika. Adierazpen desberdinak eskainiko lituzkete gizarteko talde desberdinek eta euskal lurralde desberdinetakoek ere. Euskal Herria egitate historiko kulturala da, euskaltasun ñabardura desberdinekin: arbasoengandik datorkigunaz gainera, oraingoa eta etorkizunean izan nahi duenaren emaitza. Banaketa politikoaren eta administratiboaren gaineratik, kultur eta komunikabideetako esparruko kultur lokarriak sendotzen ahalegindu beharko litzateke, kultur ekitaldien koordinaketa bideratuz, euskal kulturaren merkaturaz sortuz elkarren arteko truke errazarekin

eta sarean kultur eredu integratzailea eta ikuspegi bateratua bultzatuz. Horrek, elkarrekin sareak eta merkatu zabalak sortzeko, hitzarmenak eskatzen ditu Nafarroarekin eta Iparraldearekin. Udalbide elkarteak gure Herriko lurraldeen artean dagozkien koordinaketa lanak burutuko lituzke.

Hamargarrenik, Espainiako eta Frantziako, euskaldun asko dauden Latinoamerikako eta USAko herri eta merkatuetan eramangarri eta trukagarri izango den kultur eskaintza. Kalitate maila onekoak eta ulergarriak sortu behar dira barruko sareak baino zabalagoetarako espezializazioa eta osagarritasuna uztartuz.

Azkenik, apustu handia: euskal kulturaren edukien plataforma Interneten. Bai administrazioak eta bai gizarteak ahalegin handiak egin behar dituzte punta-puntakoak izaten Internetetik eman behar dena sortzerakoan, metatzerakoan eta zabaltzerakoan. Gure kultura bizkortzeko motore bilaka daiteke alor hau. Erronka honi trebeziaz eta koordinazioz heltzeko gauza bagara, erraldoiaren urratsa egingo dugu badatorkigun krisia gainditzeko.

Web-eko eragile desberdinen zeregina berezi behar da kultur digitalaren sorkuntzari, gordailuari eta erabilerari ahal denik eta etekinik handiena ateratzeko. Sortzaileen eta argitaratzaileen lana nahi da erraztu, eginkizun teknikoagoen eta astunagoen zama arinduz. Aldi berean eskaintza eta azkeneko bezeroen erakertasuna gehitzen dira horrela.

3.3.- KOMUNIKABIDE POLITIKA

Komunikabide politika, bere izaera estrategikoari esker, joan-etorri handikoa da gizartearen integratzearako eta heldutasunerako eta herri-nortasunaren eraikuntzarako. Ezinbestekoa da komunikabide sistema integrala edukitzea komunikazio, aniztasun, kalitate eta integratze arrazoiengatik eta baita ondarearen, artearen eta kultur emaitzen zabalkunderako ere.

Mediatik plazaratu behar diren gaiak era askotakoak dira alorrez eta lekuz:

- Herrien arteko integratzea, espazioa txirikordatzeko xedez, *bailara edo lurralde* bakoitzeko integratzea ahaztu gabe;
- elkartasuna gizarteko, kulturako eta politikako taldeen arteko elkarriketaren bidez;
- burubideen, irudien, gaien, agenden, hornidura Herri Iritzi jarraigarria osatzeko;
- medioen eta audientzien sistemaren erabilera soziolinguistikoa aurrerabidea;

- gizarte eta ideologi egitatearen eta komunikabideen artean erantzun hobe lortzea, kapitalizatzeko, demokratizatzeko eta sarbide ardatzen bidez;
- giza eskubideekiko, aniztasunarekiko eta herritarren balioekiko begirunea (Behatokia eta Ikus-entzunezko Kontseilua) bezalako erakunde burujabe eta trebatuen begiradapean;
- kanpoarekin eta trukerako harreman zuzena, munduko komunikabide sareetan azalduz.

Informazioari, balioen zabalkundeari, hizkuntzen erabilere, gustuen hezkuntzari edo agenda egiteari loturik dauden bitartekoen egitura lortu nahi da. Hiru helburu izango lituzke.

Ardatz batzuk:

- A) Lehenik, Eusko Autonomi Elkargoan eta Euskal Herri osoan barne komunikazioa egituratu eta sendotu, anitzagoa eta partaidetza handiagokoa eta gizarte eta kultur sentiera eta bizi-kizun desberdinekoentzat ezagun gertatuko dena eskainiz.
- B) Bigarrenik, komunikabide sistemaren kalitatea hobetu ondoko aldetara: informazioaren aniztasuna eta kalitatea; balioen edukia; hizkuntza normalkuntza; kulturaren informazioa; informazio mailak eta belaunaldiei, interesei eta herritarrei egokitutako programazioa.
- C) Hirugarrenik, kanpora (Espainia, Frantzia, Europa, Amerika eta diasporara) begirako informazioa eta indartsuagoak diren eta toki guztietan dauden prentsaren, telebisten, enbaxaden, informazio kabinete eta agentzien, nazioarteko medioen eta abarren mezuak zertxobait bederen orekatzeko geure edukiak zabaldu behar ditugu. Aukera onak galtzeaz gainera, kulturak eta euskaldunon hitzak oztopoak dituzte estatuen mugak gainditzeko. Besterik gabe, gure kultura eta euskaldunon irudia beste batzuen eskuetan daude, interes politikoz narrastuak gainera.

Sarea sare bezala moldatu behar da, bere edukietan nahiz sareetan. Transmisio eta zabalkundeko teknologia zahar eta berriak ezartzeko (analogikoak, digitalak, kable bidezkoak...) diseinutan aurreratu behar da. Bestela, nazioarteko talde erraldoiek eta beren bertako adarrek beren ereduak sartuko dizkigute eta gure kultura, bere garapenerako, tokirik gabe aurkituko da. Arlo honetan Euskaltelek, EITBk eta abarrek zeresan handia daukate.

Horrekin guztiarekin batera zehar arazo batzuk ikus daitezke: *mediaen* kalitatea, aniztasuna eta deontologia hobetu beharra, gehiegizkoa den pilaketa mugatu beharra, arauen bidez, eta eragile berriak sortu, komunikabideetan euskara bizkortu eta hortik ateratzen den komunikabide eredu etengabe zaindu beharra.

IV.- ONDORIOAK

- Arazoa ez datza aniztasunean, giza eskubide eta eskubide politikoaren garapenak eta bizikidetzak mundu osoan bizi dituzten egoeretan baizik. Erronka unibertsaltasunari ekitea da ezberdintasunei zor zaien errespetua abiaburua delarik.
- Gutxiengoan dauden identitateek galtzekoa dute trukatzeko diglosiko edo mediatikoan. Ezin da esan berezko inertzia duen sistema dagoenik eta etengabe eman behar da instituzio eta taldeen aldeko borondatea eta gizarte zibila osatzen duten agenteen aldeko ekintza, lan instituzionala ez baita nahikoa.
- Kulturaren aldeko apustu estrategikoa egiten badugu eta zirkuitu teknologiko sortzaileetan, naiz eta harreman edo eragin handiko sareetan sartzen baditugu gure baliabideak mugaz kanpotik eragindako presio kulturalak, Estatutik naiz munduaren edozein puntutik egindakoak, orekatzeko gai izango gara.
- Berezitasun gisa kontuan hartu behar da euskaraz ekoizten den kulturaren etorkizuna euskararen normalizazioaren menpe dagoela eta euskal kulturaren sorkuntza produkzio eta zabaltzearen menpe, berdin delarik munduan ematen diren aldaketa arinetarako egokitzea egiteko erabiltzen den hizkuntza. Apustu bikoitza da eta bat ezin da bizi bestea ez badago. Norabide bietan eta une berean ematen dira euskal literatura, musika, bertsolaritza, euskaratik beste hizkuntzetara itzultzea eta alderantziz...
- Horrek guztiak eta balio erantsi inmaterialak gero eta handiagoak diren munduak eskatzen duena garamatza kultura arlo guztietatik sektore estrategiko eta lehentasunezko zatitara jotzera. Ondorio kulturala (aniztasunari egindako ekarpena kultura gutxituaren aldetik), teknologikoa (sare eta azpiegiturei edukiak ematea), ekonomikoa (balore inmaterialen eta jakintza kualitatibo eta sozialki hezitzaileen sektorea unean uneko aldaketetara egokitzeko) eta instituzionala (2. lerroko arlotik lehen lerroko arlora igarotzea).
- Kultur politika, udalerrin baten, herrialde baten edo Herri baten kultur egitasmoa hiriaren edo herrialdearen egitasmo estrategikoaren barruan egongo da. Jarduera lerroak behin definituta, kultura arloan hauek barneratzen jakin behar dugu hiria, eskualdea, herrialdea eta Herria

sustatzeko estrategia orokorragoari erantzungo dion marko globalizatzailer batean. Horrekin guztiarekin, gainerako politika publiko sozialak, ekonomikoak, hezkuntzaren arlokoak, ingurumenaren arlokoak eta herrigintzakoak lotu egin behar dira.

- Honek guztiak erronka berria planteatzen du. Euskaldunok burua erakutsi izan dugu materialaren gaineko ekonomian, burdingintzan, makina arloan, antolakuntzan, ahaleginean eta eraginkortasun produktiboan. Oraingoan eman behar dugu materiala ez den horretarako urratsa eta on line edo off line baliabideen sustatzea eta elkar trukitzea edozein arlotan, kultura barne. Horrek esan nahi du kultura eta komunikazio makrosektorea kudeatzea baina ez beste sektore bat gisa, kultura arloko behar eta lehentasunek gidatuta baizik, eta ahaztu barik zeharkako eraginak: sistema ekonomiko eta soziala formazio eta sorkuntzaz betetzen du, aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozialetarako gizarte egokitzea emateko egoera sortzen du, sistema osoa elikatzen du (adibidez telekomunikazioak ezinezkoak izango liriteke barnean ideiak eta programak egon ezean) eta egoera onak sortzen ditu teknologia aurreratuan inbertsioak egiteko. Nazioarte mailako doktrina da (UNESCO, 2005eko urria) kultura ez dela besteen moduko gai bat eta berau sustatzeko industria politika horizontal eta berdintsuetatik kanpoko bitarteko berezien bidez egin behar da eta hainbat arlotatik ikusita (une berean emandako laguntasunak esparru fiskaletatik, hezkuntza arlotik, kanpo harreman arlotik eta industriatik) Sektore berezitua da tratamendu berezitua eskatzen duena.
- Sektore produktibo propioa behar dugu. Ondare, sortze eta kultur produkzio eta komunikazio propioa behar dugu, hau da, herrialde mailakoa. Hori funtsezkoa da gizarte moderno batean. Erkidegoaren garapena bere arazoaren errepresentazio eta kudeatzearen arabera izango baita.
- Sortzaileak estimulatu behar ditugu eta produkzio kulturalerako gunea eratu beharra dago gure erkidego barruan eta erkidegotik kanpo, gunea eta merkatu zabalago eta hobeto ordainduetarako euskal sortzaileen ihesa mugatze aldera.
- Administrazioak eta gizarteak ahalegin serioa egin behar dute internet bidez edukiak sortzeko metatzeko eta banatzeko orduan. Gure kultura dinamizatzeko motorea izan daitekeen sektorea dugu honakoa. Izan ere, erronka honi aurre egiten gaitasuna erakusten badugu urrats handia emango dugu datorren krisialdia gainditu ahal izateko.
- Une honetan Euskal Herriak aukera handiak ditu jakintza, kulturaren internazionalizazioa, tokian tokiko sorketa, kulturak garapenean duen

egitekoa eta kultura digitalaren lehen urratsak aprobetxatzen. Honetaz guztiaz baliatzeko berebizikoa da epe luzerako egitasmoa laguntzea eta gure garaiko eliteen laguntasunarekin. Aurreko garaietakoekin alderatuta kultura arloan jarduten duten eragileak, sortzaileak, produktoreak, instituzio publikoak, hezkuntza sistema eta finantzazaileak dira hauek. Kulturak duen indar ekonomikoa ikusi behar da. Euskal Herriko mugetatik haratago produzitu behar da eta kalitate maila onarekin, kulturaren espezializatu abiaburua nortasun propioa izanik.

- Ageriko ondorioa da, kultur arloei begira baliabide zabal eta ugariak egokitu behar direla, agiri honetan aipatutako erronkei modurik egokienean erantzun ahal izateko; eta, beraz, Administrazio desberdinak balio erantsiak gero eta inmaterialagoak diren gizarte honetan egitasmoak eta erabakiak sustatzeko bitarte handiagoak ipini beharko dituzte.

EBBk Herrialde Buru Batzarrei ildoak garatzeko beharra adieraziko die, herrialde mailako eta uri mailako kultur politika zehazte aldera.

ERANSKINA:

EBBk Lurralde exekutiboari gida-lerro batzuen garapenaren beharra helaraziko die lurralde eta udal eremuen kultur politika zehaztu ahal izateko.